Programa honetan ezarritako diru-laguntzek bete egingo dute Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko Araudian (EE) ezarritakoa. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an eta Minimis araupeko laguntzei buruzko EB Ituneko 87. eta 88. artikuluen aplikazioari dagokio. Halaber, diru-laguntzek bete egingo dituzte araudi horretan gerora egiten diren aldaketak. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, Minimis enpresa jakin bati emandako laguntzak guztira ez du gaindituko 200.000 euroko zenbatekoa 3 zerga ekitalditako edozein epetan. Muga hori ezarriko da, Minimis enpresa jakin bati emandako laguntza gutxiagotu egingo da, zehazki gehiegizko zenbatekoari dagokion kopuruan.

8.- Eskaerak aurkeztea, epeak eta lehentasunak.

Eskaerak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren bulegoetan (Bizkaia plaza 3, atzealdea) aurkeztu beharko dira.

Eskaerak aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea dakar.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau BAOan argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2015eko abenduaren 31n amaituko da.

Laguntza-eskaerak ebazteko, eskaerak erregistratu zireneko hurrenkerari helduko zaio zorrotz, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osorik badago, eta aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu kredituaren mugaraino.

9.- Dokumentazioa.

Deialdi honetan adierazten den laguntza lortzeko eskaerak eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira. Horiek eskura egongo dira <http://www.a-zz.net> helbidean eta Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLn.

a) Diru-laguntzaren eskaera eredu normalizatua:

1. Eskaera. (1. eranskina).
2. Enpresari edo erakundeari buruzko eta kontratatutako pertsonari buruzko informazioa eta kontratuaren ezaugarriak. (2. eranskina) 9. Puntuaren b) eta c) ataletan eskatutako dokumentazioa aurkeztea.
3. Eskaeraren eredu ofizialean sartutako zinpeko aitortpena. Honako hauek hartuko ditu barne: (3. eranskina).
 - a) Aitortpena, adierazten duena laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

- b) Zinpeko aitorpena, adierazten duena diru-laguntza publikoak itzultzeko edo zehapenak jasotzeko prozeduretan ez dagoela.
 - c) Zinpeko aitorpena, adierazten duena erakunde eskatzailea ez dagoela zehatuta zigor eta administrazio arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat.
 - d) Zinpeko aitorpena, azaldu egiten dituen ekintza berbera egiteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo horietatik jasotako diru-laguntzak.
 - e) Zinpeko aitorpena, adierazten duena Minimis araua betetzen duela, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudiak (EE) ezarritakoarekin bat. Araudia 2006ko abenduaren 28ko EBAOn argitaratu zen, Minimis Laguntzen Itunean, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EE). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adierazten du.
4. Hirugarrenen alta-dokumentua, erakunde eskatzaileak eta banku erakundeak sinatuta eta zigilatuta (laguntza helbideratzeko bankuko datuen inprimakia). *(4. eranskina)*.
5. Erantzukizuneko adierazpena, adierazten duena kontratazioak ez duela kanpoan uzteko edo bateraezin izateko kausarik eragiten. *(5. eranskina)*.

Eskatzaileak baterako aitorpenean jasotako datuen bat faltsutzen badu, dagokion zehatzeko erregimena aplikatu ahal izango zaio.

b) Enpresak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskatzailea pertsona fisikoa denean: NANaren fotokopia.
Pertsona juridikoen kasuan: Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, NANaren fotokopiarekin batera eta sinatzen duen pertsonaren ordezkartza-ahalmenak.
2. Pertsona juridikoak badira, erakundea edo enpresa eratzeko eskrituren fotokopia (ondoren izandako aldatetekin) eta dagokion erregistroetako inskripzioa.
Berezko nortasun juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da.
3. Izen emate eta baje ziurtagiria Ekintza Ekonomikoen gaineko Zergan, Foru Ogasunak luzatutakoa.
4. Gizarte Segurantzaren enpresa edo erakundearen izen ematearen kopia.
5. Diru-laguntza eskatu duen erakundeak bere zerga betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri eguneratua.
6. Erakunde eskatzaileak bere betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen duen Giza Segurantzako Diruzaintza Orokorraren agiri eguneratua.
7. Gizarte Segurantzako kotizazioaren TC2 dokumentuak, kontratua egin aurreko hiru hilabeteetakoak.

c) Kontratazioari eta kontratatuko den pertsonari buruzko dokumentazioa:

1. Kontratuaren xede den pertsonaren NANaren kopia.
2. Zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena kontratatutako pertsonak ez duela bigarren mailarainoko (hori barne) ezkontza, ondorengo edo ahaidetasun harremanik enpresariarekin, enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza kargua dutenekin edota sozietatearen itxura juridikoan eragiten duten enpresen administrazio organoetako kideekin, ezta azken horiekin sor daitezkeenekin ere. *(3. eranskinean sartuta daude)*
3. Diruz lagunduko den kontratuaren kopia. Lanaren iraupena eta lanaldia jaso behar ditu.
4. Kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta eman zaiola adierazten duen agiriaren kopia.
5. Kontratatutako pertsonaren lan-bizitzari buruzko Gizarte Segurantzaren txosten eguneratua.
6. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak igorritako ziurtagiria, enplegu eskatzaile gisa izena eman duela egiaztatzen duena.

d) Justifikatzeko eta azken ordainketa egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Jarraian adierazitako dokumentazioa diru-laguntza justifikatzeko unean aurkeztuko da, berau ordaintze aldera.

1. Laguntzaren xede den epean diruz lagundutako kontratuaren soldaten ordainketen banku-ziurtagiria.
2. Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak laguntzaren xede den aldian zehar.
3. Diru-laguntza eskatu duen erakundeak dagozkion zerga-betebeharrak eguneratuta dituela frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri eguneratua.
4. Erakundeak bere betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Giza Segurantzako Diruzaintza Orokorraren agiria.
5. Aldi baterako kontratuen kasuan, Gizarte Segurantzaren baja eman izanaren kopia.
6. Diruz lagundutako epearen TC1 eta TC2.

10.- Akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzaren eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintzak bete ezean, edo eskatutako dokumentazioa eransten ez bada, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/92 Legeak bere 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak eransteko eskatuko zaie interesdunei. Era berean, jakinaraziko zaie eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela inolako izapiderik gabe, legezko testu beraren 42.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Eskaera ez da egindakotzat hartuko behar bezala bete arte eta espedientea osorik egon arte.

11.- Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea eta laguntza emateko ebazpena.

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLri dagokio aurkeztutako eskaerak aztertzea eta ebaluatzea. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen duen edozein agiri eta/edo informazio osagarri eska dezake eskaera behar bezala ulertu eta ebaluatze aldera.

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren Administrazio Kontseilua izango da prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena izango duen organoa.

Ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eskaera bakoitza aztertu eta ebaluatutakoan, ebazpen proposamena luzatuko du, eskatutako diru-laguntza eman edo ez-emateko berariazko erabakiarekin eta horren zenbatekoa adierazita.

Laguntza-eskaerak ebazteko, eskaerak erregistratu zireneko hurrenkerari helduko zaio zorrotz, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osorik badago, laguntza horri ezarritako aurrekontu-kredituaren mugaraino.

Abanto-Zierbena, SLren Administrazio Kontseiluak hurrengo bileran ebatziko du horren inguruan.

Gehienez ere hamabost eguneko epea egongo da ebazteko eta jakinarazteko, dagokion eskaera aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 44. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, behin ebazpena emateko aurrekusi den epea igarota interesdun enpresa edota erakundeari jakinarazpenik egin ez bazaio, eskatutako laguntza ukatu egin dela ulertuko da.

Argitaratzeari dagokionez, Diru-laguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluari eta Lege horren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 ERREGE DEKRETUaren 30. artikuluari erreparatuko diote.

Onuradun izateko deialdian ezarritako baldintzei dagokienez, berriz, kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela-eta kontuan hartu ez diren eskabideen zerrenda ere ebazpenean jaso beharko da, Diru-laguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3.artikuluan jasotzen den moduan. Erabaki berri baten bidez, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izango dira ezetsitako eskaera horien zerrendako lehentasun-ordenari jarraituz, betiere onuradun batek berariazko uko-egiteagatik eskatutako kreditua agortu arte.

Horretarako, berariazko uko-egitetzat hartuko da oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzea.

12.- Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza bi ordainketetan emango da, % 50 Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren Administrazio Kontseiluak emandako laguntzen ebazpena onetsi ondoren, eta gainerako % 50a kontratua amaitzean, deialdi honetan araututako kontratazio-baldintzak egiazki bete direla egiaztatzen denean. *(9d puntua).*

13.- artikulua.- Diru-laguntzaren justifikazioa eta epea.

Gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, emandako diru-laguntza zehazten duen kontratua amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzen duen dokumentazioa justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diruz lagundutako kontratuaren soldaten ordainketen banku-ziurtagiria.
- b) Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak laguntzaren xede den aldian zehar.
- c) Diru-laguntza eskatu duen erakundeak dagozkion zerga-betebeharrak eguneratuta dituela frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri eguneratua.
- d) Erakundeak bere betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Giza Segurantzako Diruzaintza Orokorren agiria.
- e) Aldi baterako kontratuen kasuan, Gizarte Segurantzaren baja eman izanaren kopia.
- f) Diruz lagundutako epearen TC1 eta TC2.

14.- Baliabide ekonomikoak.

Lan-merkatu arruntean kontratazioak egiteko (Kontratazioak Egiteko Laguntzak.-Abanto Enpresa) enpresentzako laguntzen bidez Abanto Zierbenan enplegua sustatzeko diru-laguntzen deialdiak araututako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 60.000 eurokoak dira.

15.- Betebeharrak:

Abanto Zierbenan kontratazioa sustatzeko diru-laguntza hauen erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte.

- ✓ Diru-laguntza hauen helburua betetzea. Horretarako, kontratazioa 3. atalean finkatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen Gizarte Segurantzaren alta emanda egingo da 2015eko abenduaren 31 baino lehen.
- ✓ Diru-laguntza jasoko duen enpleguaren iraupena bermatzea, alderdiek sinatutako lan-kontratuan finkatutako denboran, eta altari eustea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean etenik gabe.

- ✓ Diru-laguntzaren eskaeran ezarritako epean kontratatutako pertsonaren lan-egonkortasunari eustea.
- ✓ Justifikatzea diru-laguntza ematea eta gozatzea zehazten duten betebeharrak eta baldintzak bete direla eta jarduera gauzatu dela.
- ✓ Abanto-Zierbenako Zerbitzuak, SLk egiaztatze eta kontrolatzeko egingo dituen jarduketari erantzutea.
- ✓ Abanto-Zierbenako Zerbitzuak, SLri jakinaraztea diru-laguntzarik edo laguntzarik edota diru-sarrerarik nahiz baliabiderik jaso den helburu bererako beste edozein administrazio edo erakundetarik, publikoa zein pribatua izan.
- ✓ Abanto-Zierbenako Zerbitzuak, SLri jakinaraztea diru-laguntza ematean eragina izan lezakeen edozein egoera, objektibo zein subjektiboa, aldatu den.
Jakinaraztea kofinantzatutako jardueren helburuan zein izaeran funtsean eragin dezakeen edozein gertaera, bai eta Abanto-Zierbenako Zerbitzuak, SLrekin jarduera horiek egiaztatze, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko eginiko prozeduretan laguntzean eragin dezakeen edozein gertaera ere.
- ✓ Dirua itzultzeko edo zehatzeko prozeduren berri ematea. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere Erakunde Autonomoek, Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta elkarte publikoak emandako laguntza eta diru-laguntzen arloan abiarazita egonik, oraindik izapidetzen ari direnen berri.

16.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak ematean aintzat hartutako baldintzaren bat aldatzen bada eta, izatekotan, helburu bererako diru-laguntza edo laguntzaren bat jaso dela jakiten bada eta Abanto-Zierbena Zerbitzuak SLk emandakoari gehituta onetsitako kostu osoa gainditzen bada, emandako diru-laguntza aldatu egingo da, betiere diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betez eta diru-laguntzak emateko ezarritako irizpide eta mugak aplikatuz. Baldintzak aldatzeak emandako zenbateko osoa edo zati bat itzultzea ekarriko balu, dirua itzultzeko dagokion prozedura hasiko da.

17.- Arauak ez betetzeak.

Deialdi honetan aurreikusitako zenbatekoen erakunde onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako egoera batean badaude, edo deialdi honetan ezarritako edozein baldintza betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak dagokion ebazpena emango du, aitortu egingo du erakunde onuradunak ordaintzeko falta zen zenbatekoa jasotzeko eskubidea galdu duela, eta, hala behar izanez gero, ordura arte jasotako eta diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrera dagozkion legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra dauzkala ere bai, bidezko beste zenbait ekintzatan eragin gabe, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan

ezarritakoarekin bat etorritik. Aipatu zenbatekoak diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkion legeko ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da erantzukizunen erregimena.

18.- Ikuskatzea.

Abanto-Zierbena Zerbitzuak SLk diruz lagundutako jarduerak ikustatu eta egiaztatu ahal izango ditu egokitzen jotzen duenean, eta enpresa edo erakunde onuradunek eskatutako informazio osagarri guztia eman beharko diote.

19.- Dirua itzultzeko prozedura.

- a) Aurreko puntuan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, Abanto-Zierbena Zerbitzuak SLk erakunde interesdunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura abiaraziko dela, baita prozedura hori zergatik hasi den adierazi ere, eta 15 eguneko epea emango dio bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Prozedura abiaraztea bertan behera utziko ditu, hala badagokio, falta diren ordainketak.
- b) Alegazioak jaso ondoren, edota epe hori alegaziorik aurkeztu gabe igaroz gero, amaiera emango zaio prozedurari Abanto-Zierbena Zerbitzuak SLko presidentek emandako ebazpenaren bidez. Dirua itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatziko da.
- c) Prozedura amaitutzat ematen duen Ebazpenean aintzat hartzen bada arau-hausteren bat egon dela, aitortuko du erakunde onuradunak ordaintzeko falta zen zenbatekoa jasotzeko eskubidea galdu duela, eta, hala behar izanez gero, bidezko zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra daukala. Horretarako, bi hilabeteko epea izango du, Ebazpena jakinarazten den unetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.
- d) Zenbateko hori borondatezko epean itzultzen ez bada, abian jarriko dira dagozkion izapideak hori premiamendu bidez berreskuratuzeko.

20.- Datu pertsonalak babestea.

Datu Pertsonalen Babesari dagokionez jakinarazten da eskatzaileen datu pertsonalen tratamendu automatizatu ahal izango dela eta datu horiek Abanto-Zierbena Zerbitzuak SLren Informazio Sistemari sartu ahal izango direla. Aipatu datuak udal-kudeaketarako bakarrik erabili izango dira, baina beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan. Interesdunek datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta horien aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Herritarren Arretarako Bulegoaren bidez.



Laguntzen programan parte hartzeak esan nahi du jakinarazten diren datu pertsonalak Abanto-Zierbena Zerbitzuak SLrekin lan egiten duten administrazio publikoei edo erakundeei utzi ahal izango zaizkiela eta hedapen orokorreko komunikabideetan argitaratu ahal izango direla.

21.- Azken xedapena.

Laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Enpresa edo erakunde interesdunek eskaera aurkezteak oinarriak erabat onartzea dakar.



(1 Eranskina/ Anexo 1)

2015ean ABANTO ZIERBENAN KONTRATAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK ESKATZEKO ESKABIDEAREN EREDU OFIZIALA / MODELO DE SOLICITUD OFICIAL PARA SOLICITAR -KONTRATAZIOAK EGITEKO LAGUNTZAK.-ABANTO ENPRESA- 2015

| | |
|---|------------------------|
| Izena eta abizenak/ Nombre y Apellidos: | NAN zk./D.N.I.: |
| Honen ordezkari gisa (enpresaren edo erakundearen gizarte-helbidea) /En representación de (razón social de la empresa o entidad): | |
| Izen komertziala/ Nombre comercial: | IFZ/IFK /N.I.F./C.I.F. |

Abanto Zierbena udalerrian kontratazioa sustatzeko Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk onetsitako laguntzen deialdia dela eta,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

- Kontratazioa sustatzeko laguntzen deialdi honetan parte hartzeko beharrezko baldintzak ezartzen dituzten oinarriak ezagutu eta onartzen ditut.
- Egjaztzen dut enpresak eskabidearen inprimakian emandako datuak egiazkoak direla.
- Egjandako kontratazioa bat dator aipatu laguntzen oinarrietan eskatutako baldintzekin.
- Laguntza hau eskatzeko zehaztutako dokumentazio guztia erantsi da.
- Jasotako diru-laguntzaren kargura eginiko gastu eta ordainketen ziurtagiriak, hala badagokio, dokumentu elektronikoak bane, erakunde onuradun honetan egongo dira 2019. urtera arte, dagokion administrazioak egiaztatze- eta kontrol-jarduerak egin ahal izateko.
- Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorri, onartu egiten dut nire datuak Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk laguntzak kudeatzeko sortutako fitxategian egotea. Datuotara sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko edo aurka egiteko eskubidea izango dut, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLko bulegoaren bidez.

Hori guztia dela eta, **ABANTO ZIERBENA ZERBITZUAK, SLri HONAKO HAU ESKATZEN DIOT:**

Bere eskaera onartzea eta dagokion diru-laguntza ematea, . Lan merkatu arruntean kontratatzeko enpresentzako laguntzen bidez Abanto Zierbenako Enplegua sustatzeko – Kontratazioak Egiteko Laguntzak- Abanto Enpresa-2015 deialdiaren oinarriekin bat etorri.

Abanto Zierbenan 2015ko _____aren ____ (e)(a)n

Enpresaren sinadura eta zigilua

En relación a la convocatoria de ayudas aprobadas por Abanto Zierbena Zerbitzuak, S.L. con el objetivo de promover la contratación en el municipio de Abanto Zierbena

MANIFIESTA

- Que conoce y acepta las bases donde se establecen las condiciones necesarias para acceder a esta convocatoria de ayudas para promover la contratación en Abanto Zierbena.
- Que certifica la veracidad de los datos consignados por la empresa en el formulario de solicitud.
- Que la contratación realizada se ajusta a las condiciones requeridas en las bases de las mencionadas ayudas.
- Que se adjunta toda la documentación requerida para solicitar esta ayuda.
- Que la documentación acreditativa de los gastos y pagos efectuados con cargo a la subvención recibida, incluyendo en su caso los documentos electrónicos, obrarán en poder de esta entidad beneficiaria hasta el año 2019 en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control de la Administración correspondiente.
- Que con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre sobre Protección de datos de carácter Personal, acepta que sus datos formen parte del fichero que establezca Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L para gestionar las ayudas y podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a través de la Oficina de Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.

Por todo lo cual, **SOLICITA A ABANTO ZIERBENA ZERBITZUAK, S.L.:**

Sea aceptada su solicitud y se le conceda la ayuda que corresponda conforme a las bases de la Convocatoria de Subvenciones para el Fomento del Empleo en Abanto Zierbena mediante Ayudas a Empresas para la contratación en el Mercado Ordinario de Trabajo. –Kontratazioak Egiteko Laguntzak- Abanto Enpresa-2015.

En Abanto Zierbena, a ____ de _____ de 2015

Firma y sello de la empresa



(2 Eranskina/ Anexo 2)

ENPRESAREN DATUAK/ DATOS DE LA EMPRESA:

| | | |
|---|-------------------|-------------------------------|
| Izena eta abizenak/ Nombre y Apellidos: | | NAN/D.N.I.: |
| Honen ordezkari gisa (enpresaren edo erakundearen gizarte-helbidea) /En representación de (razón social de la empresa o entidad): | | |
| Izen komertziala / Nombre comercial: | | I.F.Z./I.F.K. /N.I.F./C.I.F. |
| Egoitza soziala, fiskala edo lantokia /Domicilio social, fiscal o centro de trabajo: | | |
| Udalerría / Municipio: | PK/ C.P.: | Probintzia / Provincia: |
| Telefono-zenbakia /Teléfono: | E-posta / E-mail: | Web orria /Página web: |
| Enpresaren jarduera / Actividad de la empresa: | JEZ/I.A.E.: | Altaren data / Fecha de alta: |

LANGILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA TRABAJADORA:

| | | |
|---|-------------------|-----------------|
| Abizenak /Apellidos: | | Izena / Nombre: |
| Jaioteguna / Fecha de nacimiento: | NAN zk. /D.N.I.: | - |
| Helbidea / Domicilio: | | |
| Harremanetarako telefono-zenbakiak / Teléfonos de contacto: | E-posta / E-mail: | |

KONTRATAZIOAREN EZAUGARRIAK/ CARACTERÍSTICAS DE LA CONTRATACIÓN:

| | | |
|---|--|---|
| Kontratu mota /Tipo de contrato: | Aldi baterako /Temporal | Aurreikusitako iraupena/ Duración prevista: |
| Mugagabea / Indefinido | | |
| Kontratu-mota/ Modalidad de contrato: | | Lanaldi-mota/ Tipo de jornada: |
| Lanpostua / Puesto de trabajo: | Ezarritako hitzarmena / Convenio aplicado: | Lanbide kategoría / Categoría Profesional: |
| Urteko soldata gordina / Salario Bruto anual: | | |

ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

| | |
|--|------------------------|
| Izena eta abizenak / Nombre y Apellidos: | NAN zk. /D.N.I.: |
| Honen ordezkari gisa (enpresaren edo erakundearen gizarte-helbidea) / En representación de (razón social de la empresa o entidad): | |
| Izen komertziala / Nombre comercial: | IFZ/IFK /N.I.F./C.I.F. |

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- 2015an Abanto Zierbenan Kontratazioa sustatzeko laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutu eta onartzen ditut.
- Ordezkatzen dudun enpresak Abanto Zierbenan du zerga-egoitza, egoitza soziala edo lantokia.
- Ez nago diru-laguntza publikoak itzultzeko edo zehapeneko prozesu batean sartuta.
- Ez dut zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak jaso eta ez nago horretarako ezgaitzen nauen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuen bame, Erakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorritu.
- Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrak eguneratuta ditut.
- Minimis araua betetzen dut, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudiak (EB) ezarritakoarekin bat. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EB). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adierazten dut.
- Laguntzaren eskabide honetaz gain, honako organismo publiko edo pribatu hauen laguntzak eskatu edo jaso ditut, xede bererako:

| Eskara- data | Erakunde programa | Zenbateko osoa | Laguntzaren zenbatekoa |
|-----------------|----------------------|-------------------|---------------------------|
| | | | |

- Eskabidean aurkeztutako dokumentuak eta datuak egiazkoak dira.
- Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dira.
- Kontratatutako pertsonak ez du bigarren mailarainoko (hori bame) ezkontza-, ondorengo- edo ahaidetasun-harremanik enpresarekin, enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo sozietatearen forma juridikoan eragiten duten enpresen administrazio-organoetako kideekin, ezta azken horiekin sor daitezkeenekin ere.
- Halaber, hitzematzen dut erakunde honi idatziz emango diodala beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aurrean kontratazio honetarako eska ditzakedan bestelako diru-laguntzen berri.

Eta horrela jasota gera dadin eta ondore egokiak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Abanto Zierbenan, bi mila eta ___(e)ko ___aren ___(e)(a)n.

Enpresaren sinadura eta zigilua

DECLARA

- Conocer y aceptar las bases de esta convocatoria de Ayudas para Promover la Contratación en Abanto Zierbena 2015.
- Que la empresa a la que represento tiene establecido su domicilio fiscal, social o un centro de trabajo en Abanto Zierbena.
- No hallarse incurso en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.
- No estar sancionada ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.
- Que cumple la regla de Minimis, conforme a lo que establece el Reglamento (CE) nº 1998/2006 de la Comisión Europea, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el DOCE de 28 de diciembre de 2006, del Tratado de la Ayudas de Minimis, que sustituye al reglamento (CE) 69/2001, así como sus posteriores revisiones.
- Que además de la presente solicitud de ayuda, ha solicitado o recibido ayudas para este mismo fin de los siguientes organismos públicos o privados:

| Fecha solicitud | Organismo | Programa | Importe total | Cuantía ayuda |
|--------------------|-----------|----------|------------------|------------------|
| | | | | |

- Que los documentos y los datos aportados en la solicitud son veraces.
- Que se cumplen todas las condiciones exigidas en la convocatoria.
- Que la persona contratada no es cónyuge, descendiente o pariente que tenga relación de parentesco por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive con el con el/la empresario/a o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad, así como la que se produzca con estos últimos.
- Asimismo, se comprometo a informar por escrito a este organismo de las solicitudes de subvención que pueda realizar ante otros organismos públicos o privados para esta misma contratación.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, expido la presente en Abanto Zierbena, a ___de ___de dos mil ___.

Firma y sello de la empresa o entidad



(4 Eranskina/ Anexo 4)

HIRUGARRENEN ALTA DOKUMENTUA / DOCUMENTO DE ALTA A TERCEROS

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK (A)/ DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO (A)

| | |
|--|-------------------------|
| Izena eta abizenak/ Izen soziala / Nombre y Apellidos / Razón social: | NAN zk. /D.N.I.: |
| | |

HELBIDERATZEKO DATUAK (B)/ DATOS DE DOMICILIACIÓN (B)

| | | |
|-------------------------------|-------------------|-------------------------------|
| Helbidea / Domicilio: | | |
| | | |
| Udalerría / Municipio: | PK/ C. P.: | Probintzia/ Provincia: |
| | | |

BANKUKO DATUAK (C)/ DATOS BANCARIOS (C)

| |
|---|
| Kontuaren titularra /Titular de la cuenta: |
| |
| Bankua edo kutxa / Banco o caja: |
| |
| Sukurtsala /Sucursal: |
| |

| Erakundearen kodea / Cód. Entidad | Suk. kodea / Cód. Sucursal | KZ/ D.C. | Kontuaren zenbakia / Nº de Cuenta |
|--------------------------------------|-------------------------------|----------|-----------------------------------|
| | | | |

Abanto Zierbenan, 2015ko _____ (e)(a)n
En Abanto Zierbena, a ____ de _____ de 2015

Banku-erakundearen sinadura eta zigilua
Firma y sello de Entidad Bancaria

Enpresaren sinadura eta zigilua
Firma y sello de la empresa

(5 Eranskina/ Anexo 5)

ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

| | |
|--|-------------------------------|
| Izena eta abizenak / Nombre y Apellidos: | NAN zk./D.N.I.: |
| Honen ordezkari gisa (enpresaren edo erakundearen gizarte-helbidea) /En representación de (razón social de la empresa o entidad): | |
| Izen komertziala / Nombre comercial: | IFZ/IFK /N.I.F./C.I.F. |

**BETE EZAZU ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPEN HAU
REALIZA LA SIGUIENTE DECLARACIÓN RESPONSABLE**

- | | |
|---|--|
| <p><input type="checkbox"/> Kontratu hauek ez dira aldi baterako laneko enpresek langileak enpresa-erabiltzaileen eskura jartzeko eginikoak.</p> <p><input type="checkbox"/> Ez da enplegu-programen onuradun izatetik kanpo utzi, arau-hauste oso larriak egiteagatik.</p> <p><input type="checkbox"/> Ez da laguntza eskatu aurreko 12 hilabeteetan, kaleratze kolektiboen baitan, diziplina arrazoiengatik edo arrazoi objektiboengatik, kontratuak amaiazarazi dituzten enpresa, arrazoi horiek bidegabetzat jo badira epai judicial baten edo laudo arbitral baten bidez, betiere kontratazioak egiten dituen lantokiari badagozkio.</p> <p><input type="checkbox"/> Indarrean dagoen lan-arauegia eta Lan-arriskuen Prebentzioarako Legea betetzeko konpromisoa hartzen du.</p> | <p><input type="checkbox"/> No son contrataciones realizadas por empresas de Trabajo Temporal para la puesta a disposición de personas trabajadoras en empresas usuarias.</p> <p><input type="checkbox"/> No haber sido excluido/a como beneficiario/a de programas de empleo por comisión de infracciones muy graves.</p> <p><input type="checkbox"/> No haber realizado en los 12 meses anteriores a la solicitud de la ayuda, extinciones de contratos en virtud de despido colectivo, o por causas disciplinarias u objetivas declarados improcedentes por sentencia judicial firme o laudo arbitral y referidos al mismo centro de trabajo en el que se realicen las contrataciones subvencionadas.</p> <p><input type="checkbox"/> Se compromete a cumplir la normativa laboral vigente y la Ley de Prevención de Riesgos Laborales.</p> |
|---|--|

Eta horrela jasota gera dadin eta ondore egokiak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Abanto Zierbenan, bi mila eta ___(e)ko _____aren ___(e)(a)n.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, expido la presente en Abanto Zierbena, a ___de _____ de dos mil ____.

Enpresaren sinadura eta zigilua

Firma y sello de la empresa o entidad